

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Eguna: 2015-04-16 Lekua: Santa Klararen Jauregia Ordua: 17:00 – 18:30

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Gizatiar: Marisa Pedrero, Begoña Fernández

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Roda: Clara Lorenzo

Talde Popularra: Ana Basilio (batzarraren hasieran parte hartu du)

Bildu: Arantza Gutierrez

EAJ-PNV: Elena Coria

Sozialisten Udal Taldea: Teresa García Oviedo, Inés Becares

ELA: Elvira Lemona

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

Alkatea: Imanol Landa (batzarraren hasieran parte hartu du)

**Ez dira etorri:**

Getxo Enpresa

Eskuz-Esku (ez etortzeko arrazoia azaldu du)

**Aztergai-zerrenda**

- Aurreko akta onestea.
- Martxoaren 8aren balorazioa
- Berdintasun Planaren 2014ko ekintzen jarraipena
- Ekainaren 28rako, LGTB pertsonen eskubideen aldeko nazioarteko egunerako, proposamenak
- Galderak eta eskaerak

Aztergaiak jorratzen hasi baino lehen, Getxoko alkateak, udal kontseilu guztietako berezko burua den aldetik, gogora ekarri du udal hauteskundeak izango direla laster, eta horregatik hau dela Kontseiluaren azken batzarra. Batzarrera etorri diren pertsona guztien parte hartzea eskertu nahi du, eta elkarteen lanaren garrantzia bereziki nabarmendu du. Esan duenez, herritarrek erabakitzen dutenaren arabera jarraituko du edo ez alkate izaten. Baina ziur dago Kontseilua berriro eratuko dela eta bere lanarekin jarraituko duela.

Bestalde, Ana Basiliok, Talde Popularraren ordezkariak, esan du ez dela hauteskundeetako zerrendan aurkeztuko. Beraz, Kontseiluan parte hartzen duen azken aldia izango da hau. Espazio honetan parte hartzeko izan duen aukeragatik eskerrak eman ditu, oso aberasgarri suertatu baitzaio.

### **Aurreko akta onartzea**

Aurreko akta onartu da, aldaketarik egin gabe.

### **Martxoaren 8ko jardueren balorazioa**

Berdintasun teknikariak udalak antolatutako jardueretako parte hartzearen datuak eskaini ditu:

Bisita Guggenheimera: Niki de Saint Phalle artistaren erakusketara egindako bisitaldi gidatuan 19 emakumek parte hartu zuten. Beraren ustez oso interesgarria izan zen. Bide batez, erakusketa gomendatu die oraindik ikusi ez duten pertsonei.

Mahai-ingurua: aztertu zen gaia baterako hezkuntza izan zen. Mahai-inguruko hizlariak San Nikolas, Gobela eta Geroa ikastolen ordezkariak eta Lasarte-Usurbilgo institutuaren ordezkaria izan ziren. Azken horrek azaldu zuen esparru teorikoa. Entzuleei dagokienez, 23 emakume eta gizon 1 izan ziren. Berdintasun teknikariak uste du parte hartzea ez zela handia izan baina edukia oso interesgarria izan zela.

Ipuin kontalariak: 20 neska-mutil eta beraien arduradunak egon ziren. Balorazioa oso positiboa da jarduera honetan ere.

Talde bakoitzak bere balorazioa egiteko txanda hasi baino lehen, berdintasun teknikariak jakinarazi du Eskuz-eskuk esan duela ezin dutela etorri, baina gainera elkarteen jardunaldiaren balorazioa azaldu nahi izan dute, telefonoz. Elkarte honen ustez oso jarduera interesgarria izan zen eta giroa ezin hobea izan zen.

ELAren ordezkariak uste du Guggenheimeko erakusketa eta gidariaren azalpenak oso interesgarriak izan zirela.

Gizatiarreko Begoña Fernandezek esan du elkarteen jardunaldira 6 emakume bakarrik joan zirela bere taldetik. Jende gehiagok parte hartzea nahi izango zukeen berak. Bestalde, oso pozik egon zen bera antolaketarekin, saltokiarekin... Oso interesgarria izan zen guztia eta ederto pasatu zuten. Gizatiarreko Marisa Pedrerok esan du manifestazioan mutil gazte asko ikusi zituztela. Mujeres con Voz elkarteak

gaineratu du eztabaida-mahaietan ere mutil batzuek parte hartu zutela. Ez zegoen aurreikusita, baina mutil gazte batzuek parte hartu ahal zuten galdetu zuten, eta baietz erantzun zieten.

PSEren ordezkarietako batek, Inés Becaresek, esan du ezin izan zuela egon. Facebook-en jarraitu zuen eta animatua eta parte hartze handikoa iruditu zitzaion.

Bilduren ordezkariak oso balorazio positiboa egin du jardunaldiaz eta uste du eztabaida izugarri interesgarria izan zela. Kontatu duenez, ezagutzen ez zituen emakume batzuekin eseri zen mahai batean. Hurrengo astean Mujeres con Voz elkarteak antolatutako askarira joan zenean, Faduran, emakume horietako batzuekin topo egin zuen. Pentsatzen du emakume ezberdinak elkartzeko balio izan duela. Manifestazioaz esan du bere ustez jende asko egon zela.

PSEko Teresa Garcíak esan du hezkidetzako mahaia oso egokia izan zela. Zentro batzuk oraindik ere hasi berritan daudela argi dago, baina kemen handia ikusi zuen. Uste du zentroen artean sinergiak ikusteko balio izan zuela mahaiak. Gainera, agerian geratu zen oraindik bide luzea egin behar den arren gogoia badagoela.

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du Kontseiluaren ustez interesgarria zela elkarteek euren deialdia egitea eta erakundeak deialdi hori babestea, talde motor bat egotea eta gainontzekoek babesa ematea. Haren ustez, jarraitu beharreko bidea da. Gaineratu du arreta deitzen diola jendeak esatea jardunaldiarekin pozik dagoela baina elkarteek deialdiarekin bat ez egitea. Berdintasun arduraduna den aldetik berak nahi luke hurrengoetan elkarteek bat egitea eta, irizpideekin ados ez badaude, hala esatea. Zapora gazi-gozoa geratu zaio, bi elkarteek bakarrik egin dutelako deialdia, denak jardunaldiarekin pozik dauden arren. Uste du denok ari garela ikasten, baita erakundean ere, eta apur bat zaila dela, baina hobetzeko modua aurkituko dugula.

Gizatiarrek argitu du ez zela astirik egon beraien izena egitarauan jartzeko, baina antolaketan lagundu zutela. Mujeres con Voz-ek esan du Gizatiar ez zela hasieratik kartelean sartu Kontseiluko ordezkariak esan zutelako maila pertsonalean parte hartuko zutela, proposamena zuzendaritza batzordean aurkezteko astirik ez zutelako.

### **III. Berdintasun Planaren 2014ko ekintzen jarraipena**

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du aurreko Kontseiluan adostu genuela batzar honetan jarraipen dokumentua berrikusiko genuela. Gaineratu du Berdintasun Zerbitzuan ez dela inolako ekarpenik jaso, eta inork ezer esan gura duen galdetu du.

EAJren ordezkariak, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi denak, bi ekintzari buruz hitz egin nahi du:

- *JdI1.2. 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzea, baldin eta EAEko Zerbitzuen Katalogoak aukera ematen badu.*

Jarraipen dokumentuan azaltzen denez, Zerbitzuen Katalogoa ez zen 2014ko abendura arte onartu eta 24 orduko arreta zerbitzua ez da abian jarri.

- *OB2.3. Genero-ikuspegia daukaten tailerrak antolatzen jarraitzea, adineko gizonentzat, nork bere burua zaintzeko eta ingurunea zaintzeko.*

Jarraipen dokumentuan egin gabeko ekintza gisa ageri da, beste iruzkinik gabe.

Ekintza horietako lehenengoari buruz EAJko ordezkariak argitu du katalogoa oraindik ez dela ofizialki onartu. Halere, Erakunde arteko Batzordearen oniritzia jaso du. Katalogo horretan, 24 orduko arreta zerbitzua ez da ageri udal eskumen gisa.

Bigarren ekintzari dagokionez, adineko gizonentzat nork bere burua zaintzeko eta etxea antolatzeko tailerrak Nagusien Etxearekin batera antolatzen ziren. Nagusien Etxea erakunde pribatua da eta ez du tailerrarekin jarraitu nahi izan.

Berdintasun teknikariak azaldu du Berdintasun Zerbitzua tailerra antolatzen saiatu zela eta Nagusien Etxetik erantzun ziotela inork ez zuela jarduera egin nahi izan, nahiz eta urteko egitarauan ageri zen. Beraz, ez zen egingo. Gogora ekarri du beste urte batzuetan ahalegin handiagoa egin dela tailerrari publizitatea egiteko, bai kartel eta liburuxkekin bai Getxoberriren bitartez. Uste du gizonentzako tailerra berriro egitea interesgarria litzatekeela, baina ez nahitaez (edo ez bakarrik) Nagusien Etxeko bazkideentzat.

### **Ekainaren 28rako, LGTB pertsonen eskubideen aldeko nazioarteko egunerako, proposamenak**

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du urtero ekintzaren bat egiten dugula ekainaren 28an. Aurtengoan Kontseiluaren apirileko batzarrerara ekarri da, Kontseilua legegintzaldiarekin desagertuko delako eta, beraz, hau izango delako kontseiluaren azken batzarra. Gero galdetu du talderen batek proposamenik ekarri duen eta hala ez bada berdintasun teknikariak Berdintasun Zerbitzuaren proposamena aurkeztuko duela esan du.

Mujeres con Voz-ek galdetu du proposamenak aurkezteko epe bat eman daitekeen. Aste bete ematea adostu da.

Berdintasun teknikariak gogorarazi du aurreko urtean Gehituren ordezkari bat ekarri genuela, gazteek homofobiaz duten pertzepzioaz hitz egiteko. Bi proposamen azaldu ditu, biak Aldartek (Lesbiana, Gay eta Transexualen Arreta Zentroak) egindako ikerketen ingurukoak.

Batetik memoria historikoko lan interesgarri bat dago, frankismoaren azken urteetako eta trantsizioko gay eta lesbianen testigantzen bilketarekin. Dokumental labur bat dago, pertsona gehiagok euren testigantza eman dezatela bultzatzen duena, eta bizitzako istorioak jasotzen dituen testu bat dago. Berdintasun teknikariak ez dauka argi lan honen formatua hitzaldi bat eskaintzeko egokia ote den.

Beste proposamena Aldartek Emakunderen beka batekin egindako ikerketa bat da, emakume lesbianek baliabideak eskuratzeari buruzkoa. Eskuratzeko horretan zenbait eremu bereizten dira: juridikoa, osasuna, ekonomia, hezkuntza, lana eta eremu soziokulturala.

PSErentzat bi gaiak oso interesgarriak dira. Baliabideena, alderdi juridikoan, gaurkotasun handikoa iruditzen zaio: duela gutxi Espainiar Gobernuak asilo-eskaera

ukatu dio Kamerungo emakume bati, bere herrialdean lesbiana izateagatik jazarrita dagoena.

Berdintasun zinegotziak uste du proposamen biak interesgarriak izan daitezkeela baina memoria historikoari buruzkoaren alde egin du, oso garrantzitsua iruditzen zaiolako bazterketak izan duen gizarte-errotzea ikustea, iturri horietatik edaten baitugu. Horregatik, Aldartera deitzea proposatu du, ea beraiek dokumentaleko testigantzetarako testuinguru teoriko egokia azaldu ahal duten.

PSEk esan du homosexualitatea, gaur egun, gizartean, normalizatuago dagoela gizonen artean emakumeen artean baino. Haren ustez, hori matxismoaren ondorioa da.

Berdintasun teknikariak Aldarterekin hitz egingo du, dokumentalarekin batera hitzaldia emateko aukera berresteko. Aste beteko epea eman da proposamenak bidaltzeko.

### **Jaiak eta Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako jardunaldia**

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du salbuespen gisa aztergaien zerrendatik kanpoko bi gai ekarri direla. Azken unean sortu diren informazioak dira eta baloratu da, batzarra deituta zegoenez gero, ez zeukala zentzu handirik email bat bidaltzeak gai hauen berri emateko.

#### Jaiak

Berdintasun teknikariak azaldu du jaietarako proposamen bat aurkeztu gura zuen enpresa batekin batzartu dela. Uste du interesgarria izan daitekeela, baina lehenengo Kontseiluaren iritzia galdetu nahi izan du. Argitu du ez dutela aurrekonturik ikusi oraindik, beraz ideia bat baino ez da. Ingurumenaren defentsa eta eraso sexisten gaitzespena bateratzen dituen proposamena da. Gainera, parte hartzea bultzatzen du. Bi zati dauzka:

- Tapoiak biltzeko kanpaina bat, taberna eta txosnetan, plazetan eta gazteak biltzen diren lekuetan jarritako edukiontziekin. Leloa oraindik ez dago zehaztuta baina honelako zerbait izango litzateke: "Jarri tapoia eraso sexistei". Pertsona pare bat, mozorrotuta, kalean zehar ibiliko dira eta sexu erasoan aurka parte hartzera gonbidatuko dute jendea, edaten ari diren ontzietako tapoiak emanaz. Gainera, kanpainako leloa daukaten pegatinak eta txapak banatuko dira eta ekintza bideoan grabatuko da.
- Alderantzizko graffitiak modu parte hartzailean egitea. Graffiti mota honetan, presioko ura erabiltzen da txantilo baten gainean: horrela, kalea margotu beharrean garbitu egiten da. "Garbitu kalea sexu-erasoz" leloarekin pertsona pare batek, mozorrotuta, jendea parte hartzera gonbidatzen du, kalea garbituz eta erasoan aurkako leloak inprimatuta utziz.

ELAk esan du ez dagoela ados tapoien bilketarekin. Izan ere, gaixotasunak prebenitzearen inguruko elkarteek egin ohi dituzten bilketekin nahastu ahal da. Berdintasun teknikariak erantzun du gai hori baloratu dela eta hain zuzen ere ideia elkarte horietako bati donazio bat egitea dela. Kanpainaren berri nola eman da erronka, mezua zein den argi uzteko. Udalak elkarte bati donazio bat egin ahal dion eztabaidatu da. Errazena tapoiak ematea da, eta ez dirua.

Gizatiarren ustez proposamena interesgarria da. PSEk balorazio positiboa egin du bi pertsona aritzeagatik ekintzak dinamizatzen eta parte hartzea animatzen.

Berdintasun zinegotziak uste du bi ekintzak uztartu behar direla, alderantzizko graffitiarena ezin delako egin paella egunean, hau da, lehenengo jaian.

Bildu ados dago ideiarekin, baina botila osoa birziklatzeko eskatu du. Era berean San Isidroko jaiengatik galdetu du, paella eguna aipatu baita kanpainako lehenbiziko jai gisa.

Berdintasun teknikariak erantzun du kanpaina hori ezin izango dela egin, oraindik ideia-fasean dagoelako; kontratatzea erabaki arren, ez genuke astirik izango. San Isidroko jaietan iazko kartelak jartzeko, txapak banatzeko eta gaueko autobus-zerbitzua berriro martxan jartzeko asmoa dago.

ELAren ordezkariak esan du bere alaben koadrila izan zela San Inazioko jaietako irabazlea aurreko urtean eta aprobetxatu ahalko litzatekeela pregoian ideia bat azaltzeko. Berdintasun teknikariak esan du oso ondo legokeela eraso sexistei buruzko mezu bat botatzeko aprobetxatzea. Seguruenik beraiek bakarrik egin dezakete, baina laguntza behar badute emango die.

### Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako jardunaldia

Aurtengo jardunaldia Ermuan izango da, ekainaren 6an, larunbata. Oraindik ez da izenbururik zehaztu baina aztertuko den gaia emakumeen jabekuntza musika arloan izango da, batez ere rockean eta rapean. Jarduera hauek proposatu dira:

- Mahai-ingurua. Parte hartzaileak: Itsaso Gutierrez, ON (lehenago, Jauko Barik), La Furia rap-abeteslari feminista; Miren Aranguren, Occhia di farfalla; eta Emarock-en ordezkari bat (proiektu honen bidez emakumezko musikariei, batez ere Euskal Herrikoei, protagonismoa eta espazio bat eman nahi zaizkie).
- Kontzertua: Leire Elustondo, La Furia, Itsaso Gutierrez eta Izaro Andrés
- Flashmob: Tutorial bat banatuko da, udalerrri guztietan prestatu ahal izateko. Getxon hitzordua jar dezakegu, entseguak egiteko.
- Bazkaria: aurtun, denok ekartzen dugun janaria konpartituko dugu

Bestalde, Bizkaiko jabekuntza eskolen sarearen batzarrean adostu dugu datorren urtean jardunaldi hau denbora gehiagoz landuko dugula, aztertuko dugun gaiari buruzko ekarpenak bildu ahal izateko.

### **Galderak eta eskaerak**

Bilgune Feministak esan du ez dakiela galdera edo eskaera den baina elkarteei postaz aurreratu zien proposamen bat azaldu nahi du. "Gure esku dago" ekimenak emakumeei eta talde feministei egin dien deialdiari buruzkoa da, erabakitze eskubidearen aldeko patchwork bat egiten parte har dezagun. Bilgune Feministak erabakitze eskubidea ez du bakarrik lurraldearekin lotzen, baizik eta gure gorputzekin ere bai. Esan du sektoreka biltzen ari direla, adibidez abesbatzak edo euskalgintza. Eta oraingo honetan hitzordua emakumeentzat da. Elkarteei galdetu die larunbatean Telletxeko hitzordura etorriko diren.

### **Amaiera**

Batzarra amaitu baino lehen, berdintasun zinegotziak eskerrak eman dizkie etorri diren partaide guztiei, urte hauetan Kontseiluan parte hartzeagatik. Erantsi du plazer handia izan dela guztiekin lan egitea eta giro atsegina lortu dela, batzuetan gure artean iritzi ezberdinak egon diren arren.

